

---

## LITERATURA

---

### *KONTU-KONTARI*

#### PILAR

Analisien emaitzen bila 13an joateko esan zion erizainak, eta papertxo batean idatzita eman bazion ere, egutegian apuntatu zuen. Begiradak, ordea, lerro bat behera egin zion maiatzaren 22arte. Zenbat oroitzapen!

Jangelara joan eta apaletik aspaldian begiztatu gabeko albuma atera zuen. Larru itxurako gainaldea eskuaz pasatu eta ireki egin zuen 22 zenbaki hark bultzatuta. Gorrixkatutakoertzak ikusi zituenean ez zion bere buruari barkatu deskuidua, eta berria erosiko zuela zin egin zuen. Hezetasunak eta denborak herdoildu egiten dute oroigarririk preziatuena ere.

Nostalgiak ziprztindutako irribarreak jantzi zizkion ezpain inguruak. Banaka pasa zituen orriak batean begirada geratu eta galdu arte. Eskolan ateratako argazkiak urruntzen eta galtzen joandako eskola-lagunen aurpegiak aurkeztu zizkion zuri-beltzean. Banaka pausatu zuen begirada, bakoitzaren izen-abizenak ahoskatuz, gogoan zuen maistrak egiten zuen eran. Gela handia izan zen haiena, eta maistra bakarra haiek guztiak gobernatzeko. Hainbeste aldiz ikusi zion jertse beltz fin hura zeukan soinean maistrak.

Bateren bat begiak itxita harrapatu zuen, sudurra igurzten beste bat, nahiz eta geldi egoteko esango zien maistrak behin eta berriz. Hamarren bat urte izango zuten eta ume izatetik koskortzeko bidean abiatuak ziruditen neska kuadrilla hartakoek.

Ezkerraldean topatu zuen bere burua, ilea liso, aurpegi bizi, oraindik gogoan zuen igandetako soinekoa jantzita. Hala jantziko zuten argazkia aterako zietela jakitun. Alai zuen aurpegia, betirako geratuko dela dakienaren jarreraz.

Eta alboan Pilar, umetako lagun mina, noizbehinkako hase-reak ahaztu eta lagunaren beharra sentitzen zuen hura. Baziren herrian geratutakoak, baita albo herrietara ezkonduak; Pillarrek, ordea, kapitalera egin zuen, gazte, Madriletik etortzen zen udatiar familia bakarreko seme gazteenak txoratuta. Inori esan ez bazion ere, onartua zuen Pilar zela gelako neskarik politena.

Urtero itzuli zen lehen urteetan. Umeak etorri zirenean ere egiten zuten ibilbidea aitona-amonen pozerako. Baina haiek joan zirenean, ia guztiz utzi zioten etortzeari.

Eta apurka argazki albumean geratu zitzaion Pilar, ertzak herdoiltzen hasitako laguna, ispiluan bere buruari ikusten zizkion mantxa haien modura.

Sukaldetik kipula beheratuaren usaina heldu zitzaionean ekstraktora pizteko eskatu zion gizonari, eta jangelako atea itxi zuen zarata gutxitzearren.

Maiatzaren 22 hark indartuta orriak pasatzen hasi zen, babeserako plastikoen azpian hunkitu zuen argazkia aurrez aurre ikusi zuen arte. Beltza zuen soinekoa, lora zuriak eskuan, mantelina xare bat buruan, tente eta irribarretsu gizona alboan, betirako izango zituen masailetakoko zulo txo jolastiak erakutsiz. Nostalgia harrapatu eta atzera egin zuen une batez, ardo zuria ez zuela topatzen esanaz agertu zitzaion arte gizona.

Tematu zen berriro bakarrik geratzean, beste bat ere behar zuela, Pilar ezkondu zenean Madriletik bidalitakoa. Orri pare bat aurrerago topatu zuen. Beltza zuen hark ere soinekoa, baita mantelina xarea ere buruan, loreontzia alboan eta koa-

dro bikain bat atzean. Estudioren batean ateratako hartan irribarrea zuen ezpainenetan; bizitza berri eta dotorea igartzen zuen kapitalera ezkondu zen Pilarrentzat.

Orriari plastikoa altxatu eta hartu zuen argazkia. Ez zion hutsik egin memoriak, hantxe ageri zen telefonoa.

Hurrengo egunetan, akordatu aldiro izaten zuen tentaldia deitzeko; ez zen ausartzen, ordea. Urteak ziren elkarren berri jakin gabe.

Bazkalorduan gizonari komentatu zion, baina aurrerabide handirik ez zion eman. Honezkero beste tokiren batean biziko zirela, beste telefono zenbakiren bat izango zutela, urteak ez direla alferrik pasatzen, ez zion asko lagundu.

Egun batzuetan albo batean utzi zuen gaia, baina ahaztu gabe, mesanotxean argazkia gordeta.

Zapatu arratsaldean alaba gazteena etorri zen amak emandako erosketa zerrenda poltsan zuela. Asteko kontuen ondoren, gaia atera zuen. Inoiz entzuna zuen Pilarren berri, eskola laguna, Madrileran joan zena, aspaldiko kontuak. Euren argazkia erakutsi zion lehenbizi, alabaren irribarreen artean; ondoren, atze-aurre, Pilarren ezkontzakoak. Umetan bitxiak egiten zitzaizkion argazki haiek, alabak ez zuen ulertzen beltzez ezkondu behar hura, lutoaren kolore berberaz, zer pentsatua ematen zion, berak zuriz ikusten zituenean andregaiak.

Animatu egin zuen alabak, lagunak zaindu egin behar direla, aspaldi hitz egin ez bazuten ere alaituko zela Pilar, izango zutela zer kontatu eta, aitak nahi bazuen, egun batzuk pasatzera gonbidatu behar zituztela, hutsik zeudela gelak etxe hartan, biloba gazteenak etortzen ziren egunak izan ezik.

Gizonak eman ez zion indarra eman zion alaba gazteenak.

Hurrengo goizean haririk gabekoa hartu, sukaldeko aulki batean eseri eta urduritasuna uxatzen saiatuz, deitu zuen. Luze egin zitzaion txirrinaren oihartzuna hariz bestaldean. *Diga*

ezagun batek apurtu zuen. *Pilar Andia?* urduriak jarraitu zuen.

Poztu zen Pilar, aspaldikoa, eta egunaz eta bizitzaz jardun zuten, umetakoaz eta gerokoaz, herrikoaz eta kapitalekoaz. Denak kontatu nahi izan zizkion Pilarrek berbaro etengabeen. *Sierran bizi gara, txalet batean*, esan zion halako batean. *Eto- rri nahi duzuenean. Apuntatu*. Eta telefono azpiko apaletik zenbakien koaderno eta boligrafoa hartuz apuntatu zuen txaletaren helbidea.

Lagunekin egindako bueltaren ondoren esan zion gizonari, hitz egin zuela, berbaro berdinarekin jarraitzen zuela, maja topatu zuela eta gonbidatu egin zituela txaletera. Azkena silabak bereiziz esan zion, begira non gauden gu itzalpean jaurtiz.

Zirkin ia ikusi ezin bat egin eta arrautza frijitu pareta eta piper gorriak atera zituen platerean. Piperrik gabeko platera atera zion andreari, bihotz errea egiten ziotela eta. Txaletarena atera zuenean berriro, mahaian jarri zituen bi besoak gizonak, eta orain egindako zirkin berriak zalantzarik ez zuen utzi, ez zion piperrik ere inporta.

Eguerdian sobratutako flana platerean zutela bota zion:

- Sorpresa emango diegu.
- Sorpresa?
- Abisatu gabe joango gara.
- Abisatu gabe?
- Baina abusatu gabe.

Ez zuen ezer ulertu, baina ez zuen ezer galdetu.

Pillarrekin izandako hizketaldiak xaxatuta prestatu zuen plana.

Hurrengo eguerdian agertu zion gizonari, bazkarian.

- Badakizu zer egun den 22a?

- Zapatua –bota zuen *Kutxabank*-eko egutegiari begirata.
- Baina zer egun da?
- ...–zalantza egin zuen– 22a, zapatua egun guztian.
- Noiz ezkondu ginen?
- Aspaldi.
- Sekula oso ona ez baduzu izan ere, memoria okertzen ari zaizu. 22an ezkondu ginen. Detaile gutxiko gizona!
- Dios! Dagoeneko pasatu al da urtea!
- Badakizu aspaldi ez garela inora joan? Gogoratzen duzu ezkon bidaian Madrilera joan ginela?

Xamurrago begiratu zion gizonak arroz-esne koilarakada ahoratu ondoren.

- Zer darabilzu buruan? Irribarre horrek ez du ezer onik erakusten.

Leun eta goxo esplikatu zion, ezezkorik ez esateko moduan. Seme-alabak hazitxoak zeuden aspaldian eta, aspaldiko partez, urteurrena ospatzeko eskapadatxo bat egin zezaketen. Madrilera itzul zitezkeen, asteburu luze pasa, hoteltxo merke bat nahikoa zuten. Garai haiek gogoratu, eskutik helduta, geritik helduta.

- Gustatzen ere hasi zait.

Autobusean edo trenean joan zitezkeen.

- Trenak apeadero ziztrin guztietan geratzen dira. Bideak asko hobetu dira azken urteotan.

Eta goiz batean, taxia hartu eta Pilarren txaletera joan zitezkeen, umetako lagun-mina agurtzera bakarrik.

Muturra okertu zuen gizonak, bidaia haren azken helburua zein izan zitekeen igartzen hasita, baina hasierako ideia gus-

tatzen zitzaiola, biak bakarrik, berriro, Madrileko Puerta del Solen gerritik helduta.

Alabari deitu zion asmoa agertuz. Egunak esateko eta berak lotuko zuela.

Asteazkenerako egina zuten erreserba. Zapatuan irten eta asteartean itzuli, asteburu luzea eurentzako bakarrik. Ondoren alabak emandako oharrak errepikatu zizkion gizonari. Hotelekoak bidaia trenez egitea gomendatu zion, Atochako geltokitik gertu zeukatela eta hotela. Eta handik Madril osoa euren oinetan. Zuzeneko txartela ere hartu zien alabak.

Bidaiaren asmoak eta analisisien emaitza onek suspertuta egin zuen hurrengo astea, gizona ere animatuta ikusten zuela.

Zapatu arratsaldean utzi zuten maleta hoteltxoan. Elegantea eta txukuna hiru gau haietarako. Eta alabak esan bezala, ondo kokatua. Harrerako mutilak mapatxo batean apuntatuta eman zien handik bertatik oinez egiteko moduko izen zerrenda: Retiroa, Prado museoa, Alcalako atea...

Asko aldatu da Madril euren lehen bidaia hartatik, asko aldatu dira eurak ere. Kaleetan galdu dira, Retiroko putzuan argazkia atera dute, gizonak ez du Pradon denborarik galdu nahi izan, eta orduko hotelaren bila ibili dira, baina ez dira gogoratzen non zegoen. Izenez galdegin diote harrerakoari. Ez duela ezagutzen, ea noiz egon ziren. Ezpainak okertu eta bekainak jaso ditu, honezkero... Ordenagailuan begiratu du. Hogei urte itxi zutela. Udaberriko eguraldia lagun ikusgarria izan da plana.

Astelehenean geratu dira taxia hartzeko, gosaritan gizonaren purrustada bat entzun ondoren. Ea zertara txaleta ikustera eurak etxe xume batean bizi direnean. Abizena bezalako ustea izan duela bere lagun hark. Ez entzuna egin du andreak, ezusteko ederra emango dietela, eta hotelaren alboko pastel-

degian pasta kaxa bat hartu du, esku-hutsik ezin dutela agertu eta. Paperean idatzitako helbidea eman dio taxilariari.

Ordu erdi bueltan heldu dira. Ea hura den helbidekoa, txundituta daude. Baietz, ikusteko langaren erdian ateak duen zenbakia. Ordaindu, eskerrak eman eta aho zabalik geratu dira biak, ezin sinetsita. Hango harria, hango egurra, hango loretokia eta... bai, pizina ere badute. Taxian sartu beharra daramutzen hasi da gizona, eskuak poltsikoetan sartu eta marmarrean.

Tinbrea jo du andreak urduri antzean. Apur bat zain egon ondoren, neskamea behar duena agertu zaie amantal arrosa eta kopetakoa jantzita. Urduritasuna esku ahurretan, heze.

- La señora Pilar?

- Cómo?

- Pilar, Pilar Andia.

- Ez dago. Jabeak Frantzian daude, Cannesen egun batzuk pasatzen.

Gaizki egin dute abisatu gabe joaten, aurpegiratu dio gizonak, alfer bidaia.

Aurkeztu eta hizketan hasi dira neskamearekin, Pilarren umetako laguna dela, lagun mina eta abar. Pazientzia handiz entzun die neskameak, baina jabeen izenak agertu direnean seko geratu da andrearen barbaroa.

Pilar Andia astean hirutan etortzen da plantxakoa egitera eta gizonak loretokia txukuntzearen ardura du. Oso estimatuak ditu señorak, eta lorezaintzan ere aritzen omen da Pilar, gizona laguntzen. Baina astearte goizetan agertzen direla, sentitzen duela eta ea mandaturen bat utzi nahi dioten galdegin die. Ahitu zaie esan beharrekoa bat-batean. Ezetz, ez esateko ezer, Madrilen etxean topatuko dutela, erratu egin direla egu-

naz. Amantal arrosadunak kopetakoa zuzendu, agur esan, atea itxi eta txaletera doan harrizko bide zidorra jarraitu du.

Elkarri begiratu diote. Tristura igarri dio gizonak eta irribarrea igarri dio andreak, ametsa edo adar jotzea izan den igarri ezinean.

- Deituko diogu?
- Isilik egon zaitez.
- Egun hauetako batean agertuko garela txaleta ikustera.
- Ez nago gaitetarako.
- Nahi baduzu neronek deituko diot. Loretokia ondo zaintzeko esanaz eskegiko dut. Ez zen ba arrosa zalea zure Pilar?

Begirada gaiztoa jaso duenean isiltzeko erabakia hartu du gizonak, artean irribarrea ezpainetatik ezin kenduta.

Mugikorra hartu eta Pilarri deitzeko imintzioa egin du. Badaiki, ordea, ez duela egingo eta heldu direnetik lehen irribarrea atera dio gizonak. Hotelean eman dieten taxi zenbakira deitu du.

Isilik egin dute itzulera, bakoitza berean, eta taxilariak ere isilean utzi ditu euren artekoa igarrita. Gizonak pasta kaxa ireki eta ahoa gozatuz egin du etorrerakoa.

Oraindik egun eta erdi dute Madrilez gozatzeko. Umore ona berreskuratuta, gerritik heldu dio andreari hoteleko atetik sartu direnean.

*Joxemari Urteaga*